

4. UNITATEA: Gu kazetari!

Arloa: EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA
Gaia: Albistea
Maila: DBH 1. maila
Saioak: 6 saio (2017ko urtarrila)
Proposamenaren justifikazioa: Albistegietan eta egunkarietan egunero irakurri zein entzuten ditugun albiste askok nahigaberen baten berri ematen digute, horra hor suteak, istripuak, krisia eta gerrak... Zeintzuk dira entzun nahi zenituzketen albisteen tituluak? Seguru egunerokoak baino alaiagoak eta baikorragoak izango lirakeela; bada, utzi zuen irudimenari hegan egiten eta asmatu biharko egunkarian irakurri nahi zenituzketenak!
<u>Arazo-egoera:</u> A. Testuingurua: Albistegietan irakurri/ entzun egiten ditugun albisteak oso tristeak dira B. Arazoa: Zeintzuk dira entzun nahi zenituzketen albisteak? C. Helburua: Irakurri nahi genituzkeen albisteekin egunkaria/ albistegia sortzea.
<u>Eginkizuna:</u> Ikasleek albiste bereziak idatzi egingo dituzte eta bilduma osatuko dugu. Bilduma bi eratarata bildu ahal dugu: idatziz eta bideoz. Ekoizpena gure ikastetxeko blogean argitaratuko dugu www.blogablogamarinela.wordpress.com
<u>Oinarrizko kompetentziak:</u> A. Zeharkakoak: Elkarbizitzarako kompetentzia Izaten ikasteko kompetentzia Hitzez eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia B. Diziplina-kompetentziak: Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. Arterako kompetentzia

Helburu didaktikoak:

- Hainbat egunkaritako albisteak irakurtzea.
- Irratiko albisteak entzutea.
- Albistearen ezaugarriak ezagutzea.
- Albistearen egitura ezagutzea.
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak albistearen sortzeko eraginkortasunez erabiltzea
- Albisteek gizartean duten garrantziari buruzko hausnarketa egiteko estrategiak erabiltzea.
- Albisteen aurreko jarrera kritikoa garatzea
- Talde-lanean era aktiboan parte hartzea
- Jarrera positiboa izatea egindako lana berrikustean

Edukiak:

- ✓ Albistearen testu- generoa.
- ✓ Albistearen ezaugarriak
- ✓ Albistearen egitura.
- ✓ 5 W-ak
- ✓ Objektibotasuna/ subjektibotasuna bereizi
- ✓ Aditza: orainaldia, orainaldi burutua eta geroaldia.
- ✓ Informazio garrantzitsuen hautatzea
- ✓ Informazio eta Komunikazio Teknologiak autonomiaz erabiltzea: Classroom
- ✓ Talde-lanean erabakiak hartzeko estrategiak garatzea
- ✓ Lankidetzarako estrategiak garatzea

Jardueren sekuentzia:

- A. **Hasierako fasea:** 1. jarduerak. Albisteak irakurri.
2. jarduerak: albistearen ezaugarriak.
- B. **Garapenerako fasea:** 3. jarduerak. Zein da entzun/ irakurri nahi gurekin albisteak?
4. jarduerak. Gure albistearen atalak planifikatu
- C. **Aplikazio eta komunikazioaren fasea:** 5. jarduerak: Albisteak idazterak!
- D. **Orokortzea eta transferentzia:** 6. jarduerak: Errubrika

Ebaluazioa

- A. Adierazleak:
- Ea albisteen ezaugarriak eta atalak bereizi dituen.
 - Ea jasotako informazioa txantiloien bidez antolatu duen.
 - Ea informazio iturri askotarikoak erabiltzen dituen.
 - Ea albisteen aurreko jarrera kritikoa erakusten duen.
 - Ea landutako atalak eta ezaugarriak jarraituz albisteak sortzen duen.
 - Ea landutako aditz formak (orainaldia, orainaldi burutua, geroaldia)

bereizten dituen.

Ea testu editorearen oinarriko elementuak erabiltzen dituen.

Ea Classroom aplikazioa menperatzen duen

Ea bere ekoizpena berrikusi eta zuzendu duen.

Ea bere ikaskideen ekoizpenak berrikusi eta zuzentzearen aldeko jarrera duen.

Ea komunikazio-harremanetan lankidetzaz eta errespetuzko jarrera duen.

B. Ea auto-ebaluazioan eta koebaluazioan gogotsu parte hartzen duen.

Tresnak:

Ikaslearen kontrol zerrenda.

Autozuzenketerako txantiloia

Irakaslearen zuzenketerako txantiloia